

AITATXOREN AURREAN OTOITZEAN

1

Eguneroko lanen ondoren
mendiko bakardadera,
Aitatxorekin alkarrizketan
maitasunez egotera.
“Aita, hemen naukazu
bat gara Ni eta Zu
gabiltzan biok batera;
hemen naukazu Zeuk bialduta
Zeu Aita lez agertzera.

2

Nire gogoa beti Zeu zara
ta zure borondatea,
hala zein holan, danen gainetik
izan dedila betea.
Danok alkartu gura
zeure mahai ingurura
egin deutset konbitea.
Lau haizetatik milaka datoz,
zabalik euki atea.

3

Ez naizu itzi bakarrik, Aita,
gaur estu ta larri nago,
baina egizu zeure gogoa
nirea baino lehenago.
Nire neke ta lana
eta bizitza dana
zure eskuetan dago.
Hil edo bizi, Zeu izan zaitez
gero eta maiteago.

4

Zu barik ezin bizi naz, Aita,
Ni beti zure egarri,
egunez zure lanean eta
gauetz otoitzean sarri.
Biok alkarren lagun
gizona salbau daigun,
hauze da gure pozgarri.
Espiritua bekigu bion
laguntzaile ta lokarri.